



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
OGASUN SAILA

---

## **2025EKO ORDENANTZA FISKAL ETA PREZIO PUBLIKOEN BEHIN-BEHINEKO ONESPENA**

Udalaren Udaltzaren erabaki bidez, behin-behinean onartu dira 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean izango diren ordenantza fiskalak eta prezio publikoak.

Udal-zerga, -tasa eta -prezio publikoak ehuneko lau eguneratu dira, ezaugarri bereziko Ondasun Higiezin gaineko Zerga eta Ekonomi Jardueren gaineko Zerga izan ezik, horiek berariazko igoerak baitituzte.

Hobetu eta handitu egin dira zerga jakin batzuetako zerga-onurak, esaterako Ondasun Higiezin gaineko Zergan, eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan.

Ondasun Higiezin gaineko Zergan ezartzen da gainordaina aplikatuko zaiela zerga honen kuotan alokairu edo erabilera-lagapenaren bidez subjektu pasiboaren edo hirugarren pertsonen ohiko bizileku ez diren etxebizitzetara, ehuneko berrogeita hamarreko gainordaina, zenbait salbuespen gorabehera.

Erregulazio berria eman zaio Gasteizen hiri-hondakin solidoak bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzuagatik tasari, hartara Ekonomia zirkularra helburu hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen agindua betetzeko, zeinek toki-erakundeak behartzen baititu 2025eko urtarrilaren 1erako tasa espezifiko, bereizi eta ez-defizitario bat ezartzera hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzuagatik.

Tasa berriak hobariak aurreikusten ditu, bai arrazoi sozialengatik (diru-sarrerengatik, familia ugari zein guraso bakarrekoei zuzenduak...), bai ingurumenagatik (hondakin organikoak horretarako prestatutako edukiontzian uzteagatik, banakako zein komunitateko konpostajearen aritzeagatik).

Udaleko kirol-instalazioen prezioetan zabaldu egin da zerbitzuak eskuratzeko gazteen adin-tartea.

Zerbitzu berriengatik ordaindu beharreko prezio berriak arautu dira.

Oro har, aldaketa teknikoak zein eta araudira moldatzekoak txertatu dira ordenantzetan.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 18an.

Ogasun Saila



## ■ 2025KO ORDENANTZA FISKALAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

### ZERGEN ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTELAKO DIRU-SARRERA LOKALEN KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKARITZARI BURUZKO ORDENANTZA OROKORRA.

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. Artikulu hauek: 35.7, 38, 39.4, 40.1, 42. 3 y 4, 54 bis.1, 61.1 y 2, 63.3, 71.4, 72.1, 74 ter. 3 eta 4, 74 quater.1, 74 sexies. 2, 75 bis.3, 77 bis d), i),k), 77 ter., 77 quater., 77 ter.4, 78.1, 81.2, 82, 83, 85.1, 87.4.b), 89.2.a), 91.1 eta 4).

### 1 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

Zerga-onurak areagotzea eta hobetzea.

- Hobari berria aplikatu zaie zergaren kuotan eguzki bidez sortutako energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatu zaizkien bizitegi-izaerako higiezonei. 17.8 artikulua.
- Hobari subjektiboa: Errenta-tarte berria. % 40 eta % 95 arteko hobaria 15.876,00 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten familia-unitateentzat. 17.5 artikulua.
- Hiru urtetik bost urtera luzatuko da "A" edo "B" motako energia-eraginkortasun etiketa duten eraikinei aplikatzeko hobariaren epea. 17.6 artikulua

Tasa berezia aplikatuko zaie bizitegi-erabilera ez duten higiezonei. Ehuneko berbera higiezin guztientzat. 16.2 artikulua.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezin zerga-tasa % 0,643koa izatetik, % 0,686koa izatera pasako da. 16.4 artikulua.

Gainordaina aplikatu zaie urtarilaren 1ean pertsona erroldaturik batere ez duten etxebizitzetara. 16 bis artikulua.

### 2 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

Indarrean dagoen foru-araudira egokitzea. 1. eta 4. artikulua.



## **ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA (3 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA).**

Zerga-onurak areagotzea eta hobetzea. 8.2 artikulua

- Hobari berria (kuotaren % 95ekoa), Salburun Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Gasteizko Udalaren eta Ensanche 21 Zabalgunea SA sozietatearen artean 2024ko otsailaren 23an sinatutako hitzarmenean jasota dauden babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko.
- Hobaria, auzoen birgaitze integraleko proiektuetan energia berriztagarriak instalatzeko. % 50etik % 60ra bitartekoa
- Hobaria, eraikinetako obretan irisgarritasuna hobetzeko: % 78tik % 80ra bitartekoa
- Hobaria etxebizitzetan lanak egiteagatik, errentaren arabera: Eguneratu egin da errenta-taula.
- Hobaria, 65 urtetik gorakoentzako, etxebizitza egokitzeko obren egiteagatik, errentaren arabera: Eguneratu egin da errenta-taula.
- Hobaria, etxebizitzan obrak egiteagatik, baldin eta "A" energia-eraginkortasunaren etiketa lortzeko badira: % 80tik % 90era bitartekoa
- Hobaria, etxebizitzan obrak egiteagatik, baldin eta "A" energia-eraginkortasunaren etiketa lortzeko eta irisgarritasun-lanak egiteko badira: % 85etik % 90era bitartekoa

## **4 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, HIRI-LURREN BALIO-GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 4 bis eta 6. artikulua.

## **5 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA**

Indarrean dagoen foru-araudira egokitzea. Hainbat artikulua

Gehikuntza-koefiziente orokorra 1,95 izatetik 2,10 izatera igaro da. 9. artikulua



#### **6.1 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, HIRIGINTZA LIZENTZIA ETA ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 2. artikulua.

Tarifak. Hirigintza arloko kontsultak Egitura berria egin da, tarifak kontsulten tipologiaren arabera finkatuta.

#### **6.2 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, JARDUERAK LEGEZTATZEKO GAITZE-AGIRIAK TRAMITATZEKO ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 2.5 eta 5.1 artikulua.

#### **6.3 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILDU ETA SUNTSITZEKO ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Erregulazio berria, Ekonomia zirkularra helburu hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea aplikatzeko. 2025erako ezarri beharreko hondakin-tasak espezifikoa, berezia eta ez-defizitarioa izan behar du, sorreraren arabera ordainketa-sistema ahalbidetuko duena, eta zenbait arrazoi tarteko kuotan pizgarri fiskal izateko modukoa.

Tarifak: Etxebizitzen kasuan, azaleraren arabera ezarri da kuota. Lokal eta establezimenduen kasuan, azaleraren eta lokal edo establezimenduaren erabilera eta tipologiaren arabera ezarri dira kuotak. Jarduerarik gabeko lokalei begira, kuota murriztea aurreikusten da.

Zerga-onurak: Ingurumenekoak (edukiontzi "marroia" erabiltzea, banakako konpostajearen zein konpostaje komunitarioan aritzea) eta sozialak (familia-unitatearen diru-sarreraren arabera).

#### **6.4 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, PREBENTZIO ETA SU ITZALTZE ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak: 4 artikulua, 3. Apartatua: "materialak".

#### **6.5 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENDU ETA HORRETARAKO EGOKITUTAKO BILTEGIETAN GORDETZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 3. eta 4. artikulua.



#### **6.6 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, UDALAREN HIRIGINTZA KUDEAKETAREN KOSTU OROKOR ETA ADMINISTRAZIO KOSTUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketarik ez testuan.

#### **6.8 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, ETXEKOAK EZ DIREN HONDAKIN-URAK ESTOLDA-SARERA ISURTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Ordenantza antolatzea eta egituratzea, errazago uler eta aplikatu dadin.

#### **6.9 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, HONDAKINAK UDALAREN TRATAMENDU LANTEGIETAN HUSTU ETA TRATATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 5. artikulua.

Tarifak. Igo egin dira 1. Epigrafeko tarifak, Ekonomia zirkularra helburu hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea aplikatzeko.

#### **6.11 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, UDAL LANGILE ETA MATERIALEKIN EMANDAKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketarik ez testuan.

#### **6.12 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, HILETA-ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 1. artikulua eta 4. artikulua ("Lehen tarifa"), zerbitzu berriei dagozkien prezio berriak.

#### **6.13 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, AZOKEN, INGURUMENAREN ETA OSASUNGARRITASUNAREN ALORREKO IKUSKAPENAREKIN, LABORATEGIAREKIN ETA ANALISI KIMIKO ETA ANTZEKOEKIN ZERIKUSIA DUTEN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

4. artikulua. 17. epigrafea. Animalien babesa Deskripzio-aldaketak egin dira 4., 6. eta 7. paragrafoetan, behar bezala aplikatu daitezten. Tasa berriak bi kontzeptu hauetan: "Animaliak mikrotxip bidez identifikatzea eta EAEko Etxeko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) inskribatzea" eta "Amorruaren aurkako txertaketa".



**6.14 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, TXOSTENAK, ATESTATU-KOPIAK, ARGAZKI-ERREPRODUKZIOAK, FOTOKOPIAK, KARTOGRAFIA-PLANOAK, TOPOGRAFIA-DATUAK ETA ANTZEKOAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 2. eta 3. artikulua.

Tarifak. 4. artikulua. Eskaintzen diren prestazioak aldatzea. Batzuk kentzea eta berriak gehitzea.

**6.15 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK DESINFEKTATZEKO UDAL PARKEKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketarik ez testuan.

**6.16 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, GASTEIZKO AUTOBUS GELTOKIKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 1. artikulua.

**6.17 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, LURZORUAREN KUTSADURAREN PREBENTZIOAREN ETA ZUZENKETAREN ALORREKO TXOSTENAK EGIN ETA KONTSULTEI ERANTZUTEARI DAGOZKION TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketarik ez testuan.

**7.1 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN JARRITAKO SALTOKI, BARRAKA, SALMENTA-ETXETXO, IKUSKIZUN EDO JOLAS-INSTALAZIOENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 4. artikulua. 3. Epigrafea - "Denboraldiko saltokiak".

**7.2 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, BIDE PUBLIKOAN KIOSKOAK JARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketarik ez testuan.



### **7.3 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, BIDE PUBLIKOAN MAHAIK, AULKIAK ETA ABAR JARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Egokitu egin da bide publikoko okupazio-elementuen deskribapenari buruzko testua, Gasteizko ostalaritza-establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko ordenantzan xedatutakoaren arabera, 2022ko ekainaren 22ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez egindako aldaketaren moldeetan (ALHAO, 2022-08-08).

### **7.4 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK ERAIKIN PARTIKULARRETAN SARTZEAGATIK ETA ALDI BATERAKO APARKALEKU-ERRESERBENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENAL**

Tarifak. 14.15. eta 16. epigrafeak. Hobetu egin da testua, tasa behar bezala aplikatu eta kudeatzeko. Tarifa berria 16. epigrafean, hilabeteko edo hortik gorako denborarako aparkaleku-erreserbentzat.

### **7.5 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, BIDE PUBLIKOAN EDO AUZO LURRETAN ERRETEEN EDO ZANGAK IREKITZEAGATIK ETA, ORO HAR, BIDE PUBLIKOKO ZOLADURA EDO ESPALOIAK URRATZEAGATIK NAHIZ BERTAN HESIAK, HABEAK, ASTOAK NAHIZ ALDAMIOAK JARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketarik ez testuan.

### **7.6 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, HIRIKO TRAFIKOA ETA IBILGAILUEN APARKALEKUAK ARAUTU ETA KONTROLATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 4. artikulua. Tarifak.

Lehen tarifa: "aparkaldi mugatua". Kendu egin dira 3. eremuko tarifak, zona hori ez dagoelako. Hirugarren tarifa. "Gehiegizko denbora ordaintzea". Argitu egin da testua. Laugarren tarifa. "Aparkaldi mugatua leku berezietan". Tarifa aplikatzeari buruzko araua gehitu da.

### **7.7 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, BIDE PUBLIKOKO LURZORU, LURPE ETA GAINAK OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketarik ez testuan.



**7.8 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, INTERES OROKORREKO HORNIKUNTZA-ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK EGITEN DUTEN JABARI PUBLIKOAREN APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. "Kudeaketa-arauak".

**7.9 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, BIDE PUBLIKOAREN GAINEKO EDO FATXADA-LERROTIK KANPOKO TRIBUNA, OLANA, BALKOI, ERROTULU, BEHATOKI ETA ANTZEKO INSTALAZIOENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 5. artikulua.

**7.10 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, HILERRIAN ERAIKUNTZAK LAGATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

4. artikulua. Hilobi-lagapen edo eskubideak (B atala). Kolunbarioa: Prezioaren aldaketa, 2023an egindakoen kontratazio-kostuaren arabera.

**7.11 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, KULTUR ETA BILTZAR EKIPAMENDUAK, EKIPAMENDU POLIFUNTZIONALAK ETA GIZARTE ETXEAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 4. artikulua.

Europa biltzar jauregia: Zerbitzu berriengatiko prezioak (Aiara aretoan eta María de Maeztu auditoriumean). Aldatu egin dira kudeaketa-arauak.

Goiuri biltzar-jauregia: "Office" zerbitzuaren prezioa. Aldatu egin dira kudeaketa-arauak.

Principal antzokia: Kendu egin da tarifa. Antzerkia itxita dago, eraberritze-lanak bitarte.

Félix Petite antzokia: Prezio berriak. Bere gain hartu du Principal antzokiaren programazioa.

Iradier Arena: Antolatu egin dira bertan eskaintzen diren zerbitzuak, hobeto uler daitezten.

Montehermoso kulturunea: Aldatu egin dira kudeaketa-arauak.

Gizarte-etxeetako espazioak: Areto berriak daude erabilgarri. Zehaztu egin dira erabilera-motak.





**7.13 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, AZTERKETA-ESKUBIDEENGATIK ETA IKASTAROENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketarik ez testuan.

**7.14 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, TAXI GIDARI IZATEKO UDAL BAIMENA ESKURATZEKO AZTERKETA EGITEKO ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA**

Aldaketarik ez testuan.

**7.15 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, HERRITARREN UDAL TXARTELA JAULKITZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. Ordenantza hau gainerako testu fiskalek duten egitura berera egokitu da.

**7.16 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, BIZAN SAREKO ZENTROETAKO ARETOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAKARAUTZEN DITUENA**

Aldaketarik ez testuan.

**8.1 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, UDALAREN HAUR-ESKOLETARA ETA HEZKUNTZA ZERBITZUAREN OPORRETAKO PROGRAMETARA JOATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 1. eta 3. artikulua (II. Puntua - Oporretako programa - "udaleku irekiak" atala: garraio-preziora gehitu da).

**8.2 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, "LUIS ARANBURU" UDAL MUSIKA ESKOLAREN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA**

Zenbait aldaketa egin dira, zentroan eskaintzen diren irakasgaietan izandako aldaketen ondorioz.

**8.3 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, GIZARTE POLITIKEN SAILAK EMANDAKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA**

Lehen tarifatik laugarrenera bitartekoei begira —zein gaitasun ekonomikoaren balorazioaren arabera kobratzen baitira—, Ondorio Askotariko Errenta



Adierazle Publikoaren (IPREM) arabera eguneratzeko tarteak ezarri dira.

Hirugarren tarifa. Eguneko Arreta Zerbitzua: Aldatu egin da prezioen taula, San Prudentzio Zerbitzuko zerbitzu berriak, larunbat eta igandeetako zerbitzuak, eta Berpizkundearen plazako Zerbitzuaren irekiera gehitzeko.

Laugarrena-a) tarifa. Etxebizitza komunitario eta egoitzetako egonaldiak: Izen-aldaketa.

Laugarrena-b) tarifa. Adinekoentzako apartamentua: Izen-aldaketa. Aplikazio-arauak gehitu dira, prezioa behar bezala kudeatzeko.

Laugarrena-c) tarifa. Gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko harrera-etxeen zerbitzuari dagokion prezio publikoa. Kontzeptu berria.

Laugarrena-d) tarifa. Udalaren Harrera Sozialerako Udal Zentroko zerbitzuei dagokien prezio publikoa. Kontzeptu berria.

Bosgarren tarifa. Kendu egingo da, ez baita zerbitzu hori ematen.

#### **8.4 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA**

Hainbat aldaketa tekniko proposatu dira, zerbitzua behar bezala kudeatzeko beharrezkoak. Hainbat artikulua

Adin-tarteak. Adin-tarteak zabaltzea. "18 urtetik 24ra arte" kategoriako testua "18 urtetik 29ra arte" bihurtu da. "25 urtetik aurrera" kategoriako testua "29 urtetik aurrera" bihurtu da.

#### **8.5 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, UDALAREN FOLKLORE AKADEMIAREN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA**

Zenbait aldaketa egin dira, zentroan eskaintzen diren irakasgaietan izandako aldaketen ondorioz.

#### **8.6 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, "JOSÉ URUÑUELA" UDAL DANTZA KONTSERBATORIOAREN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA**

Zenbait aldaketa egin dira, zentroan eskaintzen diren irakasgaietan izandako aldaketen ondorioz.



#### **8.7 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, GOBERNU IREKIAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILARI ATXIKITAKO HERRITARREN PARTAIDETZAREN ZERBITZUAREN ZERBITZUAK EMANDAKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak: "Materialak mailegatzeko zerbitzuaren aplikazio-arauak".

#### **8.8 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILAREN LANAREN BIDEZKO LANBIDE-PRESTAKUNTZARAKO NAHIZ ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak. 2.1 artikulua "Lanbide-prestakuntzako ikastaroak eta jardunaldiak" Kudeaketa-arauen aldaketa.

TARIFAK: Bi espazio berri hauen tarifak gehitu dira: "Lursailak alokatzea, logistika-lanetarako" eta "Logistikako simulazio-gela alokatzea".

#### **8.10 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, UDALAREN WI-FI BIDEZKO KOMUNIKAZIO SAREAK BALIATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA**

Aldaketarik ez testuan.

#### **8.12 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, UDALAREN ENPRESA-ZENTROETAKO ARETOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA**

Gehitu egin da "Enpresa Zentro Irekia" zentroen zerrendara.

#### **8.13 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, UDAL ZENTROETAKO JARDUERA ETA IKASTAROENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak: "Aplikazio-arauak"

Tarifak. "Euskara sustatzeko jarduerak": Gurasoentzako euskara-ikastaroak. Handitu egin da ikastaroaren ordu-eskaintza, HABEK homologatzeko. Prezioa emandako ordu-kopuruaren arabera finkatzea.



**8.14 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, EZKONTZA ZIBILAK EGITEKO ZERBITZUAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA**

Aldaketarik ez testuan.

**8.15 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEGIAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZU ETA JARDUEREN PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA**

Aldaketarik ez testuan.

**8.16 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, GASTEIZKO AUTOBUS-GELTOKIKO LURRAZPIKO PARKINGA ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketarik ez testuan.

**8.17 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, BIZIKLETA-APARKALEKU SEGURUA ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA**

Aldaketa teknikoak zein araudira moldatzekoak: "Kudeaketa-arauak".

Tarifak. "Urteko egoiliarra" esapidea "aparkalekua jatorrian" esapidearekin ordeztzea, eta urteko tarifa zena hileko tarifa bihurtzea.

**8.18 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, BISITA TURISTIKO GIDATUEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA**

Tarifa berria, tren turistikoan bisita gidatuari dagokiona.

**8.19. ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALA, AUTOKARABANENTZAKO EREMUA ETA BERTAKO ZERBITZUAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA**

Autokarabanentzako eremua eta bertako zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezioak erregulatzea.

■ % 4ko IGOERA OROKORRA ZERGA, TASA ETA PREZIO PUBLIKOETAN.